



Astekaria



elgoi



AGUSTIN  
GARAGARZA

Animalienganako  
pasioa



foto

azkue

*Betirako  
oroigarriak*

San Bartolome, 26 Tel: 74 08 48 • ELGOIBAR •

MAIATZA

5

# AMAREN EGUNA

Elgoibarrik irten gabe AMArri oparitzeko **16** ideia

**1. BARRUKO ERROPA**  
(9.270 pta.)  
ZUBIAURRE mertzeria



**2. JUVENA AURPEGIRAKO KREMA**  
(4.140 pta.) YUDEGO lurrindenda



JUVENA produktu bat erosteagatik LURRINA dohainik

**3. SENSEPIL** depilatzeko tresna (5.950 pta.) ARTEGI



MASAJATZAILE BAT eta POLTSA BAT ERREGALU

**4. ZAPATILAK** (7.180 pta.) IRIONDO kirolak



**5. EGUZKITARAKO BETAURREKOAK**  
(19.150 pta.) IKUS optika



**6. BONBOI ARTESANOAK**  
(2.100 pta.) MURUAMENDIARAZ



**7. ARRAINONTZIA ETA ARRAINTXOAK**  
(1.000 pta.) INEKO



**8. LOREAK** (1.200 pta.) MIMOX



**9. URREZKO KOLGANTEA** (8.100 pta.) ARANBURU




**10. POLTSA ETA ZAPATAK** (10.500 pta.) eta (9.500 pta.) OSORO



**11. GERRIKOA** (3.000 pta.) GARATE jantzidenda



**12. EDERGINTZA SAIOA**  
Hidratazioa, gorputz peeling-a eta masaia (12.500 pta.) GARBINE edergintza



**13. PIXAMA** (4.650 pta.)  
**ETA BATOIA** (5.000 pta.)  
ECENARRO mertzeria



**14. BAXERA** (36.600 pta.)  
30 pieza PITXINTXU



**15. KIROL ERROPA**  
(14.540 pta.)  
MUXI Kirolak



**16. JARROIA**  
(10.500 pta.)  
BETI ARGÍ



elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12  
Faxa: 74 37 04

**ARGITARATZAILEA:**

Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**

Elgoibarko Udala.

**ZUZENDARIA:**

Ainhoa Lodoso.

**ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:**

Andres Alberdi.

**KAZETARIAK:**

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

**PUBLIZITATEA:**

Myriam Aldazabal.

**MAKETATZAILEA:**

Maite Rementería.

**ADMINISTRAZIOA:**

Amaia Martín,

M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK:**

Irati Agirreazaldegí, Xabier

Ansola, Nekane Aranburu,

Pello Arrieta, Juan Mari

Elustondo, Ina Garagarza,

Ane Goikoetxea, Amaia

Gorostiza, Maite Iriondo,

Edu Iriondo, Alberto

Iriondo, KOKOE, Imanol

Larrañaga, Javi León, Juan

Mari Mendizabal, Milagros

Oiarzabal, Benantzio

Otaegi, Aitor Zabaleta,

Julen Zabaleta, Deñe

Zabalo, Lucia Zubiaurre.

**BANAKETA ARDURADUNA:**

Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.600 ale

**LEGE GORDAILUA:** SS-

1.038/92

**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



luzua fundazioa  
fundación luzua



# Hizkuntz eskubideak

**G**aur egun Euskal Herriko Nafarroako zonalde euskaldunetan eta Euskal Autonomi Erkidego zonaldeetan euskararen ofizialtasunak hainbat hizkuntz eskubide aitortzen dizkigu. Ezin ordea ahaztu Konstituzioak erdara ezagutu beharra inposatzen digula eta honek hainbat ondorio legal dituela euskara hutsez bizi nahi dugunok hizkuntz eskubideak erabiltzen ditugunean.

Oraingo legeriak, besteak beste, honako eskubide hauek aitortzen dizkigu:

- Edozein administrazioaren aurrean euskaraz hitz egin dezakegu eta edozein idatzi euskaraz aurkez dezakegu. Era berean, administrazioarengandik jasotzen dugun idatzia euskaraz hartzeko eskubidea daukagu. Horren ondorioz sortzen direnak: pertsonal euskalduna izatea, itzultzaileak izatea,... etab. administrazioaren ardura da.

- Eskola guztiek bi hizkuntzak irakatsi beharra daukate, eskola amaitzerakoan bi hizkuntzetan gaitasun maila nahikoa izan dezaten. Administrazioak eskariari erantzun egin behar dio.

- Unibertsitatean karrerako hizkuntza aukeratzeko eskubidea daukagu.

- Epaitegietan salaketak euskaraz jarri eta epaiketetan euskaraz iharduteko eskubidea: itzulpen lana administrazioaren kontura.

- Errotulazio guztia euskaraz jartzera behartuta dago administrazioa. Berdin

errepide, autopista, tren geltokietan, autobus geltokietan...

- Poliziari euskaraz hitz egin diezaiokegu.

- Postan euskaraz egiteko eskubidea daukagu ahoz nahiz idatziz.

### Eskubideon zabalkundea eta erabilpena

Eskubide mugatu hauek garatu ahal izateko behar-beharrezkoa da horien erabilpena sustatzea: egoera minorizatua zeharo barneratuta dugun euskaldunok zein erdaldunak eskubideen erabilpen normalizatu batera iritsi ahal izateko behar-beharrezkoa dugu lortu behar dugun "normaltasun" horren sustapena egitea.


Maila honetan hutsune handi bat dago gaur-gaurkoz eta, beraz, lan handia dago aurrera begira egiteko.

Euskaltzaleok euskararen erabilpena eta eskaera bultzatzea gaur egun oinarria dugu: frogatzen da behin eta berriro irakaskuntzan ematen ari den aurrerapena gurasoek gero eta gehiago euskarazko irakaskuntza eskatzen dutelako dela, epaitegietan langilego euskaldunaren beharra jendea euskaraz hasi denetik hasi da sentitzen, berdin administrazioaren aurrean zein beste gizarte esparruetan.

Azkenik esan, legeriak airean lagatzen duen atala eskubide hauen zaintzarena dela, eta ondorioz, hizkuntz eskubideen urraketa eta ondorengo defentsa gabezia arazo larriak dira gaur egun.

**Juan Mari Mendizabal**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*





## TXALOAK

Arte gustukoa duen herritar batek deitu digu Egur Arte tailerrak eta Txankakua Merkatari Elkarreak izan duten ideia txalotzeko. Herritarrek egindako artelanak bertako dendetan ikusgai ipintzea benetan ideia ona iruditzen zaiola esan digu.



## KEXAK

· “BARREn 146. zenbakian, “Bide berriak eraikitzen” erreportaian, Elgoibarrek benetan garraio aukera onak dituela aipatzen zen eta Eibar-Gasteiz autopistarekin gauzak asko hobetuko direla. Nik bi adibide jarri nahi ditut dena urre kolorekoa ez dela ikustarazteko: Badakizue Donostiara trenez joateko transbordo egin behar dela? Eta Bilbora joateko Ermuko geltokian 52 minutu itxaron behar dela? Aurrera ala atzera egin dugu?”

· Haur batzuk etorri zaizkigu herriko kaleetako hormetan dauden pintadak zein zatarrak diren esateko. Horrelako pintadak gehiago ez egitea nahiko luketeela adierazi digute.

· Mekanika ingurura arratsaldeetan futboleko jolastera joaten den gazte kuadrila baten kexa jaso dugu. Futboleko aritu ondoren, izerditan blai amaitzen dute eta egarria asetzeko San Roke osoan iturri bat bera ere ez dagoela salatu nahi dute. Mekanika inguruetan iturri bat ipintzea ondo legokeela uste dute.

## ESKUTITZAK

### Denok zoratu baino lehen!

**D**omeka eguerdia da, bazkaltzeko sasoa.

Entsalada eder bat jan ostean, bigarren plateraren txanda iritsi da. Mahai gainean bi txuleta eder ikus daitezke, zein baino zein ederragoak.

Baina aitek ez die batere aurpegi onik ipini, zeharka begiratzen die. Azken egunotan batean eta bestean entzun eta ikusi dituen behi zoroak ikusi ditu mahai gainean.

Amak eta nik okela hau trankil jan daitekeela, Elgoibarko okelarekin ez dagoela arriskurik. Baina aitek ez du ezer entzun nahi, telebistak eragindako beldurak gure berbek baino pisu handiagoa daukate, behiak bizkar gainean dituela dirudi. Deskuidoan bi txuleta haiek behi zoroen kuadrilakoak baldin badira, ea zer gertatu behar duen dio ahopean. Hiru okela jale amorraturen banketea izan behar zena, behi zoroiei buruzko eztabaida bilakatu da. Bestela ere, herri honetan aztoratzeko arrazoirik edo motiborik ez balego bezala!

Eta nola jakin behar dugu Elgoibarren saltzen den okela zorotuta dagoen ala ez? Harategiz harategi galdezka joatearen ideia berehala baztertu dugu, harakinek

gurekin egingo bailituzkete txuletak. Eta bidea zein izan daitekeen pentsatzen ari ginela, gosea maisu onena dela dioen esaerari arrazoia emanaz, gose gehien pasatzen ari zenari ideia bikaina bururatu zitzaion:

BARREn ekoei esango diegu erreportai bat egiteko. Esan diezagutela Elgoibarren saltzen den okela nongoa den, zein kalitate duen, beldurrik pasatzeko arrazoirik badagoen ala ez, ...

Amak eta nik baietz, ideia ona izan duela eta idatziko dugula baina gaurkoagatik ez gelditzeko okelarik jan gabe.

Bazkaria amaitu ostean, aitaren begiradapean, gutun hau idazteari ekin diot. Hurrengo txuletekin horrenbesteko ipuinik izan ez dezagun, BARREn ekoei mesede hori egiteko eskatu nahi dizuet. A, eta presarik sartu nahi ez badizuet ere, ea aita bejetariano bihurtu baino lehen ematen dituzuen esplikazioak. Mila esker!

A.F.

### BARREn oharra

Jakin dugunez, zenbait gazte Elgoibarko etxeetara telefonoz deitzen ari dira BARREn ize-nean inkesta bat egiten ari diren aitzakiarekin, jendeari adarra jotzeko asmoz. Dei horiek ez ditu BARREn egin, eta argi laga nahi diegu irakule guztiei BARREn ez dabilela inolako inkestarik egiten.

## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





**Z** irukurutzetako gurutzean aterata dago aste honetako erretratua. **Juani Txurru-****kak** ekarri digu erredakziora “mendi buelta egitera joanda dauden egunen batekoa izango da”. 1966. urtean aterata dagoela uste du Juanitak, urtea ziur esa-

terik ez duen arren. Mendira igo ondoren atsedenaldea hartu eta erretratu polit hau ateratzeko aprobetxatu omen zuten hiru sanlorentzotar hauek.

Zein diren? Ezkerrekoa Gelatxorrota baserriko **Justo Arriola (†)**, erdikoa **Tomas Zabaleta(†)** Amuskategi baserrikoa eta eskumakoa **Juan Francisco Txurruka Orraindi baserrikoa**. Lehen biak koinatuak ziren eta eskumakoa, bi hauen iloba.



## II. URTEURRENA

1994ko apirilaren 28an hil zen **JOSE ZABALO AGIRRE**ren oroimenez bi **urtemeza** izango dira larunbatean, **apirilak 27**, arratsaldeko 7etan Parrokian eta igandean, **apirilak 28**, goizeko 8,30etan Madalako elizan. Joango zaretanoi alde zurretik mila esker.



# Idazkera, arimaren

Ostegunean hasi zen grafologia ikastaroa Elgoibarko Izarrak antolatuta. Bi orduko hiru saiotan, Irune Ibarra psikologo-grafoterapeutak idazkeraren bitartez pertsonen izakera ezagutzen irakatsiko du. "Arimaren aurpegi misteriotsua isladatzen duen ispilu sorgindua da idazkera" Iruneren hitzetan. Jakinminak bultzaturik, guk ere oinarizko hainbat gauza ezagutu nahi izan dugu. Hona hemen emaitza.

**H**itzak dioen bezala, grafologia idazkerari buruzko teoria da. Idazkeraren bitartez pertsonaren nortasuna ezagut daiteke: adimena, lan egiteko era eta portarea. Grafologo baten aurrean pertsona biluztu egiten da berak idatzitako zerbait erakusterakoan. Max Pulver suitzar grafologoaren hitzetan, "idazkera marrazki bat da, berezko komunikazioa, pertsona introbertuenek ere kanporatzen dutena. Konzienteki idaztea, inkonzienteki norbere buruaren marrazkia, autoerretaria egitea bezala da"

Orri zuri batek ezer esaten ez duen arren, lerro batzuk idazten ditugun momentutik, esanahi osoz betetzen dugu. Izan ere, orri idatzi batean, guztia da aztergai: espazio hutsak, lerroen norabidea, neurria, sinadura, letren makurdu... Parametro konkretuak daude azterketa zehatza egiteko eta hortik abiatuz, pertsona bakoitzaren nortasuna zein den atera daiteke: autoestima, pazientzia, irudimena, inteligentzia, beldurra, sexualitatea... Grafologiak ez du sexurik, hau da, idazkeraren bidez ezin da jakin pertsona hori neska ala mutila den. Gaixo fisikoak eta menta-

lak ikus daitezke baina ezin da aurrikusi atorkizuna ez eta arraza ere.

### Aplikazioak


Euskal Herrian gehiegi hedatua ez dagoen arren, zenbait herrialdetan aplikazio asko ditu Grafologiak. Israelen, esaterako, eskoletan irakasleek gutxieneko ezagutza dute gai honen inguruan. Era horretara, ikasleen nortasuna ezagutu eta hauek arazoren bat izanez gero, beharrezko neurriak har daitezke. Bestalde, gero eta ugariagoak dira grafologiara jotzen duten enpresak lanpostu baterako norbait aukeratzekoan. Epaikete-

tan ere aplikatzen dira azterketa grafologikoak.




### Grafoterapia

Grafologia hedatzen joan den neurrian, adar ezberdinak sortu dira. Esaterako, haurren grafologiaren bidez, umeez egiten dituzten marrazki eta idatziak interpretatuz, umeen izakera, garapena, arazoen zergatia eta beste asko ezagut ditzakegu. Lehen gerra mundialaren ostean, Sorbonako unibertsitatean grafoterapia landu zen traumak izan zituzten haurrekin eta emaitzak oso onak izan ziren. Pertsona baten karakterra alda daiteke idatzeko era aldatuz,

## Grafologiaren erabileraren zenbait adibide



Bederatzi urteko neska baten eskuizkribu hau epaiketan aurkeztu zuten. Aitarekin geratzea nahiago duela ikusten da (ikus "mama" zelako hizki txikiekien idatzi duen).



- 1- Margen oso irregularrek disziplina eta sistema eza, hunkiberatasuna agertzen dute.
- 2- Espazio huts asko aurkitzean, pertsonak bakardadea bilatzen du.
- 3- Ezkerrean margenek uzten ez dugunean, amaren gonapean babesten gara, etorkizunaren beldur.

# ispilua

molabait beriz ere idazten ikasiz. Azken finean, eskuarekin idazten dugun arren, burmuina da agintaria. Idazkerako keinu negatiboak aldatuz, keinu horiek sortzen dituzten jarrera mentalak aldatuzko dira.

## T eta G, hizki bereziak

• **T hizkian** borondatea ikasten da. T makila gabe eta beherantz idaztea alferkeriaren seinale omen da. Testuan zehar makila konstantea bada, toki eta altuera berdinean, pertsona horrek borondate handia duela esan nahi du. Makila oso luzea eta oso goian egitea menperatzaile izate-

aren islada izan daiteke, iniziatibarena, lan asko egiten duen pertsonaren islada. Makila oso behean egitea sumisioarekin lotzen da.

• **G hizkiak** hiru zati ditu: behekoa, erdiko eta goikoa. Goikoa zenbat eta altuago eduki, pertsona hori idealista dela esan nahi du, airean ibiltzen dela. Beheko kasuan, materialista izatea da ezau-garririk nabarmenena. Dena dela, G hizkia sexualitatearekin lotuta dago. Oina zenbat eta inpulso gehiagorekin egin, orduan eta instinto sexual handiagoa du pertsona horrek. Eta alderantziz, errepresio-



## Iruñe Ibarra

26 urte dituen markinar hau psikologian lizentziatua da. Bilbon ikasten ari zela, "Euskadiko Grafologia Elkartearen" bitartez grafologia eta bere espezializazioak landu zituen: haurren grafologia, froga proiektiboak, Lanerako hautespenak eta grafoterapia. Kalifornian sei hilabete pasa zituen eta "The Institute of Integral Handwriting Studies"-en grafoterapia ikasi zuen. Bizkaia eta Euskadi Irratian irratzaioak egin izan ditu eta Egin-en igandero aztertzen du irakurle baten idazkera. Era berean, UEUn ikastaroak ematen ditu eta Uztaro eta Graphos aldizkarietan zenbait artikulu argitaratu ditu. Vimala Rodgers estatu-batu grafologoaren "Change your handwriting change your mind" liburua gaztelaniara itzuli du. Grafologia ikastaroak ematen ditu eta bere bulegoan psikologia eta grafologia kontsultak ditu.


aren seinalea da oina gutxi markatua izatea. G hizkia hurrengo hizkiari lotzen zaionean, bikotearekiko entrega isladatu nahi du, eten egiten denean, inibizioa. Era berean, beheko zatia lodia denean, pertsona horrek plazerria bilatzen du, fantasia asko ditu. Estua denean, lotsa adierazi nahi du.

• **Lerroak** zuzen idazteak oreka esan nahi du. Okertzen badira, aldiz, pertsona ahulagoak diren seinale dira, inguruak eragiten dien seinale.

• **Testuaren azterketak**, pertsona horrek beste en aurrean nola jokatzeko duen esaten du. **Sinadurak**, pertsonaren benetako nortasuna isladatzen du.

• **Letra haundiak** generalean autoestima adierazten du. **Letra txikiak**, orri guztia okupatzeko, antsietatea. Suizidatu diren pertsonen letra aztertzerakoan, **obaloetan**, a eta o hizkietan, ikusi izan da pintxo bat izaten dutela barrurantz sartuta, bere buruekiko agresibitatea agertuz.

• **Kurbak** egitea valtsarekin lotzen da, irudimenearekin. Angeluak indarra, agresibitatea, disziplinarekin. Nazien idazkeretik sadiko kutsua dute, angeluz betetako letra da, behatza gainetik pasatuz gero, pintxatu egin dezakeela ematen duen letra.



Napoleon Bonaparte Austriatik-eko garaipena iragartzen: sinadura argia ez den arren, ikus goranzko keinu primarioa.

Napoleonen sinadura porrotaren ondoren. Gorputza eta keinua beherantz doaz, porrotaren seinale. Sinadura oso espresiboa da.

Nazien letra angeluz beteta dago. Sadismo kutsua nabari zaio. Badirudi behatza gainetik pasatzerakoan, letrak zizt egin behar duela.

## Sindikalismoa: krisian al dago gaur egun?

**S**indikatu batek (langileen konfederazioa) ideologia, printzipioak eta estatutuak dauzka. Federazioetan antolatzen da eta lantzean behin sindikatu bakoitzak bere kongresua egiten du, epe jakin baterako estrategia eta helburuak eztabaidatu eta finkatzeko.

Besteen kontura edo enpresari batek egindako kontratuean lan egiten duen oro da langilea (jubilatua, kooperatibista eta langabeak ere bai).

Historian zehar errealitate honek antolakuntza forma ezberdinak hartu izan ditu. Gaur egun konfederazio sindikaletan biltzen da langileria eta bertan antolatzen dira langileen interesen defentsa eta hobekuntza. Hau guztia jasotzen du langileak aurrez kuota bat ordainduz gero, noski.

Sindikatu baten funtsezko zioa negoziazio kolektiboan parte hartzea da; harreman kontraktual zuzena gertatzen den kasuetan langile taldearen bizi-baldintzak hobetzea. Sindikatuak lantzen duen beste esparru bat instituzionala da, enplegu politikak, zergen banaketa,

etengabeko heziketa, baliabide sozialak, etab.

Nazio mailako sindikatuak nazioarte mailako sindikatuen barruan biltzen dira: C.E.S., C.M.T., C.I.O.L.S.,... honi esker posible da europar parlamentuaren edo O.I.T. delakoaren aurrean helburu eta aldarrikapen amankomunak edukitzea. Kontuan izan behar da gainera gugandik gero eta gertuago dauden

negoziazio espazioak eta elkartasun politikak eragin handiagoa duten espazioak direla.


Sindikalismo abertzalea goranzka doa. Krisia eta enpresen atomizazioa gertatu arren, azken 10 urteotan afiliazioa %100 igo da.

Euskal Herrian sindikatuek egin duten lana oso garrantzitsua izan da gure herriaren egituraketa-rako (komunikabideen eta zentralismoaren gainetik). Azken hauteskundeetako emaitzak eta Nafarroako igoera ikusi besterik ez dago.

Sindikalismo abertzaleak badu langabezia, emakumeen arazoak, kontratu "basura", ordu estrak, gaurko eta biharko jubilatuen eta gabezia sozialen berri. Denoi dago-kigu lan honetan parte hartzea, bakoitzak ahal duen neurrian, anaiartekotasun kontzeptua errealitatea izan dadin.

Maiatzaren 1a mundu guztiko langileek ospatzen dugu, lekuan lekuko arazo eta aldarrikapenekin. Sindikatu mailan langileen ahotsa bat da, anaiartekotasun izpirituaren eta mundu justu bateko herri eta pertsona librearen funtsa.

(Erredakzioan itzulia)



JOSETXO ALTUNA

**HERRI-  
GAIN  
ERRETEGIA**  
San Pedro auzoa 4  
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR

**MIREN**  
arraindegia



Santa Ana  
74 34 49  
**ELGOIBAR**



**BERDIN, S. A.**

MATERIAL ELEKTRONIKO  
ETA INFORMATIKO  
BANATZAILEA

OLASO INDUSTRIALDEA  
Olasope kalea, 3  
Tel. (943) 74 12 00  
Faxa: (943) 74 30 07  
**ELGOIBAR**



## Krisian al daude sindikatuak?



**BLANKA ZULOAGA**  
42 urte, administraria

Multinazional batian nago lanian eta gu ez gaude sindikatuetan sartuta, ez jaku sekula falta izan. Dana dala, gaur egunian jendiak ez dauka sindikatuekin harreman haundirik.



**MERTXE ARTETXE**  
44 urte, administraria

Usten dot baietz, lehen zaken indarra ez dake. Gauzia gaizki dao, lana oso galduta eta sindikatuek ezin dabe gauza handirik egin. Egoeriak bultzautu galdu dabe indarra.



**LUIS IRIONDO**  
71 urte, jubilatua

Bai eta ez, bixak. Egunak ailegatzan dianian itxen dabe bultzada piskat, "hamen gaiz" esaten dabe baina ostantzian, urtian zihar ez jakue gehixegi ikusten edo entzuten.



**ANDONI ALBERDI**  
63 urte, jubilatua

ELA eta LAB indartu ein dia baina bestiak indarra galdu dabe. Politikia narrasa da eta hortik dator dana. Langiliok ere ez dou hainbeste sinisten, ostikada asko hartu ditzugu eta.



**TERESA ACEITON**  
42 urte, etxeandrea

Oso zaila da esatea, gainera nik ez dut sekula inolako arazorik izan baina egia da aspaldian protagonismoa galdu egin dutela eta hori igarri egiten da. Jendeak paso egiten du.



**ANGEL GUENETXEA**  
25 urte, injinerua

Bai, estamentu publiko guztiak daude krisian, sindikatuak tartian. Oin dala gitxi hasi naiz lanian baina nere eskubidiak zapalduko balebe sindikatueta joko nuke.

- Kontabilitate  
- Lan  
- Fiskal



Kalamua 12  
ELGOIBAR  
Tel-Fax:  
74 18 91

**URKIDI**  
**AHOLKULARITZA**  
**ASEGUEROAK**

**TINDATEGIA**



Foruen Enparantza 4  
Tel. 74 00 91 ç ELGOIBAR

*okindegia eta gozotegia*



San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35  
**ELGOIBAR**

## ■ “Gerrikoa estutzea” eskatu dio PPK alkateari

Juan Carlos Abianek, Elgoibarko Udaletxeko PPKo zinegotziak bidalitako prentsa ohar batean “alkatearen jarrera ez solidarioa” dela salatzen du herritarrekiko eta gainontzeko Udaletxeko langileekiko. “Alkateak 444.000 pta.ko soldata dauka eta beste 23.000 pta. jasotzen ditu dieta modura. Gainontzeko zinegotziok ez dugu txintik ere kobratu otsailean, martxoan eta apirilean ajuste kontuengatik”. PPKidea prest dago “beranduago kobratzera”, Elgoibarren onerako baita, baina ez zaio bidezkoa iruditzen “Elgoibarko Udalak ejenplurik ez ematea”. Hala ere argi utzi nahi du Abianek ez duela kezarik alkatearen soldari buruz. Era berean, hilero izaten den udal plenoan mozio bat aurkeztuko du Juan Carlos Abianek. “Gure herrian drogen arazoak eta beste zenbait arazok sortzen duten inseguritatea dela eta, Udaltzaingoaren eta Ertzantzaren arteko kolaborazioa handiago izatea” eskatzen du PPK aipatu mozioan. “Elgoibarren 13 udaltzaingo baino ez daude” eta plantila horrekin Elgoibarko arazo guztiak konpontzea ezinezkoa iruditzen zaio Abiani.

## ■ Plater tiraketa larunbatean San Pedron

La Unión Ehiza eta Arrantza elkar-  
teak herritarrentzat bakarrik izango den plater tiraketa txapelketa antolatu du. Joan den zapatuko lehen saioaren ostean, larunbatean, hilak 27, burutuko da bigarrena. Azken tiro saioa maiatzaren 4an izango da. Izen-ematearen zenbatekoa 1.500 pta.koa da bazkideentzat eta 2.500 pta.koa gainontzekoentzat. Behar-beharrezkoa izango da parte hartzeko tiro litzentzia edukitzea. Plater tiraketa saioko entrenamenduak arratsaldeko 3etan hasiko dira.



## Lau egunetan zehar ospatuko da Prebentzioaren jaia

Datorren astetik aurrera, drogen prebentzioarekin zerikusia duten gaien eztabaidagune eta topagune bihurtuko da Elgoibar, Errotatxok Prebentzio Astea antolatu baitu hilaren 30ean, maiatzaren 2an, 3an eta 4an. “Bizirik Bizi” lemapean antolatu diren ekintzen artean, hitzaldiak, mahainguruak eta besterik ere egongo da. Apirilaren 30ean, astearte, lehendabiziko mahaingurua izango da eta diseinuko drogen inguruko hainbat datu eta hausnarketa plazaratuko ditu Proyecto Hombre elkarteko Marga L. Azkona psikologoak. Maiatzaren 2an Askagintzako Txus Congilek eta ADOREko Laura Pego abokatuak narkotrafikoa eta korrupzioari buruz berba egingo dute. Bi saioak Kultur Etxean izango dira arratsaldeko 7,30etan. Maiatzaren 3an, “rifi-rafe” moduko zerbait sortzeko asmoarekin, “Elgoibarren asko edaten omen da. Egia ote?” baieztapen eta galderaren inguruan herritarrak bildu nahi ditu Errotatxok. Herriko Antzokian izango da saioa ahalik eta jende gehienak kabida eduki ahal izateko. Saltsarik

ez da falta izango eztabaidan herriko gazte eta gurasoek, anbulategiko langile batek, irakasle batek, Mankomunitateko eta Udaletxeko ordezkari banak eta tabernari batek hartuko baitute parte.

Prebentzio Egunean, maiatzaren 4an, herriko 37 talde Plaza Handian bilduko dira bakoitzak bere iharduera erakusteko asmoz. Eguerdiko 1ean droga trafikoa aurka eta prebentzioaren aldeko manifestazioak herriko kaleak zeharkatuko ditu. Prebentzio Aste-ari amaiera emateko *Taun Taun* taldeak “Bi kate” izeneko kale antzerkia antzeztuko du Madalako parkean.





## Danobatek irabaziak izan ditu 1995. urtean

Danobat kooperatibak azken urteotako krisiari buelta eman diola esan daiteke joan den martxoan izan zuten urteko bazkideen asanblada nagusian plazaratu ziren datuen arabera. 1995a “urte oso positiboa” izan zela adierazi zuten Danobateko arduradunek, “gure bezeroen eskariaren errekuperazioari esker fakturazioak gora egin du eta urte amaieran irabaziak izan ditugu”. Irabazien banaketaren ondorioz, %15a gehiago kobratuko dute Danobateko langileek iturri ez ofizialen arabera. Hortaz, herriko 300 bat familiaren

bizi maila igo eta kontsumoan igarri egingo dela pentsa daiteke. 1996an erreminta makinak eraikitzeke perspektibak onak dira. Hala ere, kontuan izan beharrekoa dela, aipatu zuten, Europako zenbait herrialde, Frantzia eta Alemania adibidez, krisi ekonomiko sakonean daudela gaur egun.

Danobat-en 40tik gora langilek egiten du lan Elgoibar, Azkoitia eta Debako lantegietan. Grupo Danobat-en barruan dago Soraluze eta Lealderekin batera, eta MCCko kide ere bada.

### ■ “Circulo de amigos” filmea ertainetan

Ikastetxe ertainetako ikasleek “Circulo de amigos” pelikula ikusteko aukera izango dute urtean zehar burutzen duten Osasun Heziketarako Programaren barruan. Bi zine emanaldi izango dira. Ikasleentzat hilaren 30ean, bata goizeko 9etan eta 12etan bestea. Gurasoentzako proiektzioa, berriz, arratsaldeko 7etan hasiko da. Honako hau programa honen bosgarren filmea da, azkena alegia.

### ■ Haur jaialdia Olaizaga igerilekuan

Larunbatean, hilak 27, OHoko haur guztientzako jaialdia izango da Olaizaga igerilekuan. Arratsaldeko 4etan izena emateko epea irekiko da eta 4,30etatik 5,30etara bitartean jolasak eta txapelketak egongo dira. Bazkideek 100 pta. ordaindu beharko dute sarrera gisa eta bazkidez direnek, berriz, 200 pta. Jolasen ostean arratsaldea igerilekuan igarotzeko aukera izango dute haurrek.

### ■ Podologia Jubilatuetan

Datorren maiatzaren 2tik aurrera Podologia zerbitzua martxan jarriko da Jubilatuen Etxean. Hantekako gogorruneei etab.ei tratamendua emateko Idoia Arrillaga elgoibartarra egongo da. Txanda hartzeko 74 05 26ra deitu.

### ■ Aretoko jokoak Jubilatuen etxean

Elgoibarko Jubilatuen Etxeak aretoko jokoak edo “juegos de salon” deitzen direnak antolatzeke asmoa dauka:domino, tuta, briska, txintoia... Izena emateko azken eguna ekainaren 3a izango delarik.

### ■ HBk Udaletzeko lan kontratazio bat salatu du

Kontratazio irregularra “Igor Barrutiari eginikoa da”. HBko Pello Mendizabalek prentsaurrekoan azaldu zuenez, “guk Igorren aurka ez daukagu ezer. Kontratazio horretan zenbait irregulartasun izan dira eta horiek salatu nahi ditugu”. 1994ko urrian haziendako bi langilek euskara ikasi behar zutela eta horien ordezkapena egiteko kontratatu zen aipatu pertsona, “8 orduko kontratua egin zitzaion nahiz eta ordezkapena berez bost ordu t’erdikoa izan”. Bi langile haietako batek utzi eta besteak arratsaldez jarraitzen du ikasten, bakoitza bere lanera bueltatu delarik. “Ordezkapenik egin beharrik ez dagoen arren, langile horrek kontratuarekin jarraitzen du”. HB sindikatu eta abokatuekin egon da eta, “legalki gauzak langilearen alde daude. Udalaren neglijentzia baten ondorioz, langile hori betirako gera daiteke lanpostu horretan”. Herri Batasunak kontratazio hau salatzeaz gain, erantzukizunak eskatu nahi ditu, “jakin badakigu garai hartan haziendako zinegotzia zen Mertxe Mujika gainean zegoela bai eta PSE-EE ere”.

Agustin Garagarza:

## "Indotxina eta Nepaleko faisaiak ditut"

Agustin Garagarzak, Bergarako Institutuan giza alorreko irakaslea den arren, betidanik animalien gaitasuna erakutsi du. 40 urte ditu eta gaztetatik natura eta berarekin erlazioa duen edozerk erakarri izan du. 30 txori

eta hiru txakur ditu. Txori exotiko eta arraroak benetan, Urruzuno inguruan zaintzen dituenak. Gaur egun azeriekin kezkatuta dago, aspaldian ugaritu eta dagoeneko bost ahate jan baitizkiote. Ehiztari ohia eta arrantzalea ere bada.

- Nondik datorkizu txorienganako zaletasuna?

- Nik beti izan dot txori edo txakurren bat etxean, nahiz eta espazio mugatua izan. Orain aldiz, leku gehiago duguenez animaliak ere gehiago dira.

- Zein izan zen lehenengo txoria?


- Kanarixuak eta perikituak. La Salle ikastetxean nengoenean Bartzelonara egin genuen ikasbidaia eta Ramblas-etan perikito pareja bat erosi nuen.

- Zenbat txori mota dituzu?

- Nik neuk ez daukat txori mota askorik baina daukadanak oso exotikoak dira. Esaterako, faisai indotxinarra, Nepalekoak, txinarrak...

- Non eskuratzen dituzu?

- Euskal Herrian ez dago afiziorik, guztira hiruzpalau izango gara. Baina Portugal, Andaluzia eta Levante inguruan oso zabalduta dagoen afizioa da. Dena den, elkarte batean sartuta nago eta honen bitartez harremanetan jartzen gara eta elkarren artean trukutzen ditugu txoriak. Nik ditu-



**"Azeria San pedroko trenbide ondoan ibili izan da. Niri bost ahate kendu dizkit"**

dan animalia guztiak kautibidatean hazitakoak dira.

- Ez al dute lan asko ematen txoriek?

- Garbitasuna eskatzen dute batez ere, lana eta ardura. Baina afizio bat da eta beste edozein afiziok ere lana eskatzen du. Gustura egiten denak ez du lanik suposatzen.

- Karioletan ala aske dituzu?

- Basoko animaliak

direnez ezin dira aske utzi. Kaiola haundietan daude, baina kanpoan. Indioilarrak aske laga daitezke baina beste arazo bat dago, azeria. Gaez ia herriraino jaisten da. Elgoibarren San Pedroko trenbide ondoan ibili izan da. Neri bost paitxa kendu zizkidan azeriak denbora asko ez dala.

- Eta oporretara zoazenean, non uzten dituzu?

- Hori da problemia.

Txoriak edonork goberna ditzake baina txakurrak ez. Handiak direnez arriskua ere handia da. Batzuetan, kanpora goazenean, anaia nagusiak gobernatzen ditu. Abuztuan, Errioxara joaten gara eta gertu dagoenez, hiru egunean behin etortzen naiz.

- Afizio hau garestia al da?

- Hasieran erosi egiten dituzu, gero trukatu. Garestiegia ez da baina beti suposatzen du gastu bat. Halere, afizio hau mententzeko beste batzuk baztertu egiten dituzu.

- Erakusketarik egiteko asmorik?

- Tarragonan egon ginen emaztea eta biok lehiaketa bat ikusten eta 2.000/3.000 faisai zeuden. Beharbada datorren urtean aurkeztuko ditut nireak. Hemen euskal oiloen erakusketak egiten dira. Ni arraza hori hobetzen saiatzen naiz.

- Txori bat izatekotan?

- Ez litzaidake gustatuko txoria izatea. Munduko egitura piramidalean azpian daude, beste guztien menpe. Gizakia izaten jarraitu nahi dut.

MAITE IRIONDO

# kiliBARRREN

Mendaroko gehigarria

Apirilaren 26a

28. zkia.



1

**F**ilabete honetako argazkia Agustin Berasaluzek lagatakoa da. Berak esan digunez, 1960. urtean ateratakoa da, gutxi gora-behera. Argazkia Altzolako Bainuetxean atera zuten. Dirudienez, uda horretan Mendaroko dantzari hauek Bainuetxean aurkitzen zen jendearentzat egin zuten dantza.

Hona hemen erretratuan agertzen direnak: goian, ezkerretik hasita: **Jose Mari**

**Zelaia, Juan Luis Sanz, Agustin Berasaluz, Fausto Sanz dantza irakaslea (†), Simon Zabaleta (†), Jose Ignacio Zulaika, Jose Mari Arrizabalaga, Agustin Lazaro-baster, Patxi Etxeberria txistularia (†) eta Silbino Gabilondo atabaleroa (†).**

Behean ezkerretik eskuinera: **Gregorio Vives, Jose Angel Andonegi, Jabier Urbietta eta Martin Urain.**



## ARRATS PUB

Mendaroko 73ko KINTOEN BAZKARIRA joateko,

Zelaikoa Plaza. Mendaro. Tel. 75 50 58

## Gazteei zuzenduriko inkestek erantzun eskasa izan dute

Gazteek Mendaron zeresanik ez dutela esango bagenu argi dago gezurretan arituko ginatkeela. Izan ere, herri bateko gazteek aipatzeko asko baitute, bai eta kezkarik ere. Aurten Mendaron lehenengo aldiz Udalak inkesta anonimo batzuk bidali dizkie 15 eta 27 urte bitarteko gazteei. Guztira 276 inkesta bidali baziren, horietatik 29 jaso ziren, %10,15a.

Informazio gehiago jasotzeko asmoz, Udale-

txera jo eta bertan alkatearekin izan gara. Berak esan digunez, inkesta hauen bitartez gazteen kezkak eta jarrerak ezagutu nahi ziren "erantzuna nahiko positibotzat har dezakegu, 29 gazte horiek mendarotarren errepresentazioa ez izan arren, koadrilen ordezkartza bat izan daitezkeelako". Alkatearen esanetan data ez zen hauteskunde garaia zelako aukeratu, "hauteskunde garaian bidali izanak ez du inolako interesik izkutatzen".

Inkestak jaso eta emaitzak ikusirik, Udalak gazteei zuzendutako bilera bat antolatu zuen. Halere, bilerara bost pertsona bakarrik azaldu ziren. Alkatearen hitzetan, "bileran gertatu zena ikusi ondoren, desilusio handia hartu nuen. Gu prest geunden gazteekin hitzegin eta akordio batera iristeko. Lokala emateko ere prest geunden...".

Honen guztiaren honen inguruan iritzi



ezberdinak daude. Gazteek benetan lokal bat behar al dute? Mendaroko gazteak pasiboegiak al dira? Zer gertatuko da jaietako Gazteen Egunarekin? Hauek eta beste asko dira airean dauden galderak. Batzuetan badirudi gazte-

## Zer iritzi daukazu Udalak bidalitako inke

### Leire Iriondo 17 urte

Inkesta egitea ondo iruditzen zait baina beste momentu batean bidali behar zuten. Denok dakigu zergatik bidali dituzten data horietan. Gazteok ahaleginak egin genituenean ez ziguten kasurik egin, orain berandu da. Inkesta ondo dago, norberak nahi duena esan dezake.



### Alaitz Larrañaga 18 urte

Bere garaian gazteok interesa azaldu genuenean, Udalak oso jarrera pasiboa izan zuen. Orain, badirudi zerbait eskaintzen digula baina... ikusteko dago.



### Idoia Larrañaga 19 urte

Udalaren jarrera ikusi det asko aldatu dela eta harritu egin naiz. Baina iruditzen zait inkestako partehartzea eskasa izan dela. Egun hortan bilera joan nintzen Udalaren jarrera aldaketaren arrazoia ikusteko.





ak elkartu beharrean, banatu egiten direla, ez dagoela guztientzat egokia den irteerarik. Arazoak ez du irtenbide errazik, baina beharbada guztiak, alde guztiak mahai batean eseri eta hitzegiteko ordua da. Edo hori ere

ezinezkoa al da?

Txanponaren beste aldea ere ikusi behar da eta horretarako benetako protagonistak direnei galdetu diegu: gazteei. Hona hemen Mendaroko sei gaztek honen inguruan uste dutena.

# Inkestaren ondorioak

■ Jasotako erantzunen %93ak (27) gazte sektorea beste giza multzoekin konparatuz alde batera utzita dagoela uste du, aisialdirako laguntza eta aukera faltagatik batez ere. Jubilatuen egoerarekin konparatzen dute, azken hauek biltoki egokia izanik.

■ Gaur egun gehien kezkatzen duten gaiak:

- 1.- Langabezia eta lan egokia.
- 2.- Drogak.
- 3.- Kultura.
- 4.- Etxebizitza.
- 5.- Sexualitatea.

■ 24 pertsonak (%83) beharrezkotzat hartzen dute gazte elkartegintza.

■ 23 lagun (%79) elkartearen funtzionamenduan parte hartzeko prest egongo lirateke.

■ 26 lagunek (%90) beharrezkotzat jotzen dute elkarteak lokala izatea.

■ 25 lagun (%86) prest egongo lirateke gazteen gaia sakontzeko bileretara joateko.

## estari buruz?

### Jose Maria garcia 15 urte

Nere ustez inkesta ondo gelditzearren bidali zuten. Gainera, beraiei komeni zitzaien momentuan jaso genuen. Ondo iruditzen zait inkesta egitea, nik bidali nuan, baina lotsagarria iruditzen zait bilerara azaldu zanjende apurra. Ni desiatzen nago lokala izateko baina zaila iruditzen zait Udalak ematea.



### Jon Ander Urbietta 25 urte

Nik ez nuen bidali inkesta ze momentua ez zitzaidan ona iruditu. Beraiei komeni zitzaieanean bidali zuten. Nik oso zaila ikusten dut Udaletxeak guri lokala ematea. Jendeak orain paso egiten du Udalak gurekin izan duen jarrera ikusita.



### Gaizka Lazarobaster 22 urte

Oso ondo iruditzen zait ikusten delako gutaz gogoratu dirala behingoz. Baina oso susmagarria iruditzen zait bat-batean horrelako jarrera. Mendaroko gazteok bastante pasiboak gara, ez dagoelako Mendaron ezer ere eta denok kanpora aldegiten dugu. Mendaron gazteak ez gaude elkartuta.



## IHESari buruzko hitzaldiak

- Mendaroko Emakume Taldeak
- Udalaren laguntzaz IHESari buruzko hitzaldiak antolatu ditu Kultur Etxean. Ostiralean, hilak 26, izango da azkenengo hitzaldia. Bertan, T-4 taldeko kideak diren Mariam eta Josuk "Vivir en positivo"-"Bizi zaitez" izeneko bideoa eman eta ondoren mahaingurua bideratuko dute.

## Euskarari buruzko inkesta

- Maiatzaren 2an hasita, Biztanleen Udal Erroldaren berritzearekin batera, euskarari buruzko inkesta egingo da. Inkesta hau pertsonala izango da eta biztanle bakoitzak bere orria bete beharko du. Helburua Mendaron dagoen euskararen ezagutza eta erabilera mailak neurtzea da, hizkuntza normalizazioaren inguruan eman daitezkeen urratsen oinarri bezala hartzeko. Beraz, inkesta betetzea eskatzen da, etxez etxe ibiliko den pertsona baten laguntza izango delarik.

4

## Mendaroko V. Pilota Txapelketa

- Maiatzaren 25ean hasiko da Pilota Txapelketa eta larunbat eta igandeetan, goizeko 11etatik 1era eta ostegunetan, arratsaldeko 7etatik 9etara jokatuko dira. Finalurrekoak ekainaren 29an izango dira eta finalak uztailearen 7an. Guztira 15 bikotek hartuko du parte, horietatik 10eak eskuz eta beste 5ek palaz.



EGANA

## Mendaroko Errealaren Lagunak taldearen aurkezpena

Pasa den apirilaren 15ean Peña Aran Errekaren "Mendaroko Errealaren Lagunak" en aurkezpen ofiziala izan zen Kultur Etxean. Horretarako Errealeko jokalaria batzuk izan genituen Mendaron: Luis Perez, Idiakez, Arteaga, Imaz eta Peñako ohorezko bazkidea den Aranzabal. Moderatzaile lanak Asier Arangurennek egin

zitu. Aurkezpen ofizialaren ondoren, gaueko 9ak aldera, lunch-a izan zen Aizpe elkartearen eta honen ostean afaria Errealeko jokalaria eta bazkideekin. Hona hemen afaria eta gero Mendaroko neska talde batek jokalariekin ateratako argazkia.



## Arrantza Txapelketa Kilimonen

Kilimon Zahar elkarteak antolatuta, datorren larunbatean, maiatzak 4, goizeko 8,30etatik eguerdiko 1ak arte amuarrain arrantzaren 1. Txapelketa izango da Kilimon errekan. Txapelketan Mendaroko edonork har dezake parte eta hiru kategoria izango dira: infantilak, jubenilak eta seniorrak. Txapelketarako, Kilimoia amuarrainez hornituko da.

kiliBARREN

Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Oihana Tarragual eta Elena Zubiaurre.



Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua



## Ane Lete

LETE

erropadendakoa




- **Zure armarioan beti dagoen arroparen bat?** ▶ Praka bakeruak.
- **Hobekien doakizun kolorea?**  
▶ Beltza gustatzen zat asko.
- **Barruko arropa zuria ala beltza?** ▶ Nahixo zurixa baina beltza ere gustatzen zat.
- **Etorkizuna beltza ikusten duzunean, zer egiten duzu animatzeko?** ▶ Momentuan beltza ikusi arren, segitxuan pasatzen zat, ez dot asko bihar.
- **Elegantzia arropak ematen al du?**  
▶ Erropak asko eitteu baina estilua norberak ipintzeio.
- **Zer da gustu txarra?**  
▶ Ez dao gusto txarrik, norberan gustua dao eta errespetau ein bihar da.
- **Paradisurako zein litzateke arroparik egokiena?**  
▶ Arropa asko desde luego ez, niki eta bikini batekin nahikua.
- **Zer moduz konpontzen zara ispiluarrekin?** ▶ Bueno, normal.
- **Bizitzari zein elementu kenduko zenioke?**  
▶ Neretzat txarra da inbidixia.
- **Eta zer behar luke jantzi gizarteak denok gustura egoteko?**  
▶ Komunikazioa.
- **Partxe asko egin behar izan al dituzu bizitzan?**  
▶ Ez, bizitza nahiko komodua euki dot.
- **Botoi baten zuloetatik begiratuz gero, zer ikusi nahi zenuke beste aldean?** ▶ Momentu honetan pakia.
- **Nolakoa litzateke zure neurrira egindako bizimodua?**  
▶ Errez konformatzen naiz, oinguakin oso gustura nao.
- **Nori itxiko zenioke ahoa kremaileraz?** ▶ Inori ez, norbera libre da nahi dabana esateko, neurri batian behintzat.
- **Berriz jaioko bazina, zein izen izan nahi zenuke?**  
▶ Gustura nao neure izenakin.
- **Komplementorik onena?** ▶ Belarritxakuak.
- **Etxean egoteko, bata, arropa zaharra...** ▶ Txandalakin egoten naiz.
- **Pertsonengan gehien baloratzen duzuna?** ▶ Sintzero izatia.
- **Nori kontatzen dizkiozu sekretuak?** ▶ Nere gizonari.
- **Eragin al dizu udaberriak?** ▶ Haiseran bai ze alergía al polen edo horrekin ibiltzen naiz.

## ERRENTA AITORPENA

NEURRIA:

zazpi puntukoa

Urtero legez heldu da berriz gogoko ez den ueña diru apurra aurreratu ta bapatean hau kolpea, “Hacienda” denok omen garela, batzu gehiango ordea, bizitza tranpaz bete, beti berdinek kaltea, (Berriz) batzuek ezetz dioten arren pobrea beti pobrea, nola liteke asko duenak gutxiago ordaintzea?



JON PELI URIGUEN

B  
E  
R  
R  
E  
N  
T  
A  
A  
I  
O  
R  
P  
E  
N  
A

*Apirilaren 21ean, 93 urte zituela, hil zen  
EMILIA IDIAKEZen sendiak  
bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



## Datorren astean emango dizkio Udaltzaingoak kalean galdutako arropak Caritas-i

**J**oan den astean aurreratu genuen bezala, badirudi aurten Udaltzaingoak bilduta dituen arropak Caritas-i emango dizkiola. Jakin izan dugunez, arropa horiek guztiak aspalditik daude Udaltzaingoan. Urtez urte, arropak, jolasak, betaurrekoak, giltzak... era guztietako hainbat eta hainbat gauza pilatzen dira armairu batean. Behin edo behin hortz postizoak eraman duenik ere egon izan da. Bat edo batek zerbait aurkitu eta Udaltzaingora jotzen duenean, fitxa bat betetzen da, nork, noiz, zer eraman zuen zehaztuz. Denborak aurrera egin ahala, horietako batzuk itzuli

egiten zaizkio jabeari, %40a gutxi gora-behera., baina gaintzeko guztia urtez urte pilatzen joaten da. Balioa duten gauzak, topatu zituen pertsonari ematen zaizkio Udaltzaingora eraman eta bi urtera jaberik agertu ez bada. Beste guztiek normalean zakarrontzirako bidea egiten dute.

Aurten, halere, Caritas-entzat lagungarri izan zitezkeela eta, haiekin harremanetan jarri eta hauek esker onez hartu zuten eskaintza. Horrela bada, datorren astean bertan, jaberik gabeko arropa guztiak Caritas-era eramango dira han behar dutenen artean bana ditzaten.



# IBAI Kluba

Zatoz guregana udarako zure gorputza prestatzera

**JUDO**

**TAEKWONDOA**

**WING-TSUN**

**AEROBIC**

**MANTENU GIMNASIA**

**GIMNASIA ERRITMIKOA**

**MUSKULAZIOA**

Santa Ana, 46 - Tel. 74 07 93- ELGOIBAR

*Musika, erritmoa, jolasak,...*

**Nahi al duzue zuen alabak**

**GIMNASIA ERRITMIKOA**  
ezagutzea?



*Neska hauek ez dute lagatzerik nahi.  
Zergatik izango ote da?*

## Apraiz

- Duela bost gizaldi Apraiz zen egungo Apraiz baserriaren izena. Berau Arriagan aurkitzen da. Ekaitz eta Abatetxe errekaetako urek Apraiz errekan ematen dituzte azken metroak eta burdinola, errota eta etxeari energia eta bizitza ematen zioten.
- Apraiz inguruan hiru eraikinek multzo bat osatzen zuten: burdinolak, errota eta etxeak edo egungo baserriak.
- **Burdinola** aspaldi desagertu bazen ere, oraindik ere zenbait aztarna ikusi daitezke, gaur egun arte "Olatxo" izena mantendu duelarik. Aztarnen artean Azkoitiko errepide berria egin arte hiru metroko zabalerako presa mantentzen zen Azketa parajea. Hala ere, gaur egun zati bat baino ez da geratzen.
- Anteparak nondik zihoazen antzeman daiteke, Apraizkoek hauen zatiak ezagutu dituztelarik. Urtegiaren zati bat uharriz eta hormigoiekin erromatarrez eraikia, bidearen goiko aldean eta ustez labea zego-

en tokitik hainbat metro gorago aurkitzen da. Labea egon zitekeen tokian lurra erreta dago.

- Hauxe gain, zepa asko aurkitzen dira burdinola ohiaren inguruan, eraikuntza materiale bezala erabili izan delarik (bideko hormak eta baserri barruko tabikeak eraikitze-ko), eta soro batek Zepaia toponimoa duelarik.
- Antxon Agirrek Apraizen aurkitzen diren zepen artean haizeoletakoak eta zeharroletakoak berezi zituen. Hau horrela izan balitz urez mugitutako laren (zeharrola) aurretik haize mugitutakoa (haizeola edo agorrola) egon zitezkeen.
- Burdinolak bolatokia omen zuen, Apraizen hala jaso izan baitute arbasoei entzunda. Halere, hala izan zela ikusi zen soro bat goldatzen ari zirela, goldeaz bolatokiko ohol bat atera zutenean. Urik gabe geratzen zirenean matxinoek bolotetan jolasten omen zuten.

PELLO ARRIETA



## Jose Zabalo Agirre (1932-1994)



- San Frantzisko kaleko 40an jaio zen 1932ko abenduaren 29an.
- Kondia tailerreko sozioa zen eta urte askoan bertan egin zuen lan.
- Kirolzale amorratua, futbola, pilota eta txirrindularitza zituen maiteen. Ekipo nagusiez gain herriko zein Erreleako futbolari gaztetxoenen martxa ere asko jarraitzen zuen. Txirrindulari taldeek ere ezaguna zuten eta zer esanik ez Hernaniko Galarreta frontoian.
- Oso gizon ezaguna zen herrian, batez ere kirolerako zuen zaletasunagatik.
- Emaztea ondarrutarra zuen eta alaba bat.
- Kirolaz gain musika eta euskara ere oso gogoko zituen.
- Familia eta lagunarteko giroan egoten zen gustura.
- Bere bizitzako azken zazpi urteetan Donostian bizi izan bazen ere, aste-oro egiten zuen bueltatxo bere jaioterrira.
- 1994ko apirilaren 28an hil zen.

### ITZALA

*Edergintza*

San Frantzisko, 49 - 1 esk.  
Tel. 74 43 03 - ELGOIBAR



### OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan  
konponduko dizugu igongailua

(943) 11 35 15 ● ABERIAK (943) 11 35 15  
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

### ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 tel. 74 11 89

## MOTZAK

### Partidu erabakiorra nesken futbolean

C. D. Elgoibar Elkarteko nesken taldeak atzerapauso handia egin du ligako txapeldun izateko. Pasa den zapatuan Arrasatekoen aurka Mintxetan jokatu zuten partiduan 1 eta 0 galdu zuten elgoibartarrek. Partidu erabakiorra izan zen, elgoibartarrak arrasatearren aurretik baitzeuden sailkapenean baina puntu bakar bateko aldeaz. Elgoibartarrek ligako txapeldun izateko aukera gutxi dute. Maiatzaren lehen egunetan aurka jokatu duten partidua oso garrantzitsua izango da. Aipagarria da aňorgarrak iaz Espainiako txapeldun izan zirela. Elgoibartarrak bigarren daude sailkapenean eta gainontzeko taldeek egiten dutenaren arabera lehenengo edo bigarren geratuko dira Ligan.

### Olaizaga igeriketa taldekoen emaitzak

Olaizaga Igeriketa Taldeko 9 igerilarik Arrasaten izan zen 100 eta 200 metro estiloetako txapelketan parte hartu zuten emaitza nahiko onak izan zituztelarik. Miren Esnaolak 2'30"29ko denbora egin zuen 100 metrotan. Distantzia berean Asier Ajuriagerraren denbora 1'53"80koa izan zen; Iker Astigarrak 2'02"62 egin zuen, Iñigo Canalesek 1'59"95 eta Andres Egeak 2'07"68ko denbora behar izan zuen. 200 metrotan Aingeru Osorok 3'30"06tan burutu zuen froga, 3'41"17tan Julen Arrillagak eta Iñigo Oterok 3'44"50tan.



Xabier Alonso:

## "Futbola hobby bat da neretzat"

■ **Zenbat urte Haundin?** - 10 urte. Jubeniletan nengoen lehenago eta handik Haundira igo nintzen.

■ **Beti titular?** - Bai, hasieratik. Hegalean lehenengo baina azken 7-8 urteotan defentsa libre postuan jokatu dut. Atezainaren ondoan dagoena da eta agintzen duena.


■ **Kapitaina ere bazara.** - Zazpi bat urte daramatzat Haundiko kapitain. Arakistainekin izan nintzen eta gaur arte. Egokiena nintzela irudituko zitzaion.

■ **Zenbat entrenadore ezagutu dituzu?** - Lehenengoa Arregi izan zen. Gero Juanito Lopez, urtebete egon zen eta ondoren, zazpi urtez, Arakistain. Honen atzetik Bittor Mujika izan zen urtebetez entrenatzaile eta duela bi urtetik Quique Hormaetxea dago.

■ **Taldeko beteranoetako izango zara.** - Ni baino zaharragoak badaude pare bat, baina taldean urterik gehien daramatzana ni naiz.

■ **Beteranoak pisu gehiago izaten al du taldean?** - Zerbait gehiago, beti. Gazteei dakidana irakasten saiatzen naiz, hala ere, gaurko gazteak oso espabilatuak dira gurekin konparatuz. Haundin hasi nintzenean nagusiei errespetu handia genien, ia ez ginen hitz egitera ausartzen.

■ **Erretiroan pent-**



**satzen?** - Oraindik ez. Nigatik beste pare bat urtean jarraituko nuke.

■ **Zenbat igoera bizi izan dituzu Haundirekin?** - Preferentetik hirugarrenera eta gero 2.Bra. Gero 2etik mailatik hirugarrenera jaitsi ginen.

■ **Gaur egun?** - Praktikan play-offean gaudela esan daiteke. Zortea da dena, "kara edo kruz" izaten da.

■ **Futbolari modura zure ametsak bete direla esan dezakezu?** - Gaztetan Errealean jokatzeko amesten duzu baina 20 urteren lortu ez baduzu, hortik aurrera ezinezkoa da. Urte hauetan pozik aritu naiz Haundin, hobby-a izan da niretzat futbola.

■ **Zerk eman dizu partidu bat irabazteak adinako poza?** - Semearen jaiotzak, orain hilabete batzuk.

■ **Futbolari izatea nahi duzu?** - Ez zait inporta. Gustatuko litzaidake baina ez diot behartuko. Nahi duena izan dadila.

■ **Zer safrifikatu duzu futbolagatik?** - Egia da futbola nahiko sakrifikatua dela. Oporrak, juergak... horrelako gauzak batez ere.

• Adina: 27  
• Lesiorik? Zaintiratu txikiak bakarrik  
• Golak, jokalarien meritua, ala atezainaren errua? Gehienak jokalarien merituz izaten dira

**XABIER**  
ILEAPAINDEGIA  
*Eskatu eguna eta ordua*  
San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

**MINTURAK**  
PEDRO PEREZ BERISTAIN  
San Roke, 30 behe. ☎ 74 36 52 - 74 27 89  
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZATZEA - PINTAKETA

**UDA BERRI**  
ELGOIBAR



### Beteranoen futbol partidua maiatzaren 1ean

Prebentzio Astearren barruan, iaz lehen aldiz jokatu zen beteranoen arteko futbol partidua jokatu da maiatzaren 1ean. Aurrez aurre izango dira C.D. Elgoibar taldean jokatu izan duten herritarrak eta Errealeko hainbat "hiskoriko". Mintxetan jokatu den partidua arratsaldeko seiak laurden gutxiagotan hasiko da.



### Lagun Taldeko jubenilak premundialean

Elgoibarko Lagun Taldeko jubenilen seikote honek pasa den zapatuan Bergaran korritu zen premundialean hartu zuen parte. Ezkerretik hasita, Josu Unzueta, Ramon García, Arkaitz Mujika, Alberto Díaz, Igor Rodriguez eta Orkatz Amutxastegi dira, azken hau eibartarra. 140 km-ko lasterketan 4 mendate igo behar izan zituzten: Udala, Deskarga, Asentzio eta Kanpazar. Estatu osoko 215 txirrindulari atera ziren irteera puntutik. Elgoibarko taldetik bik baka-

rrik lortu zuten lasterketa amaitzea, Ramon García eta Arkaitz Mujikak. Premundialean Estatuko selekzioa osatzeko txirrindulariak aukeratzen dira, gero horiek izaten dira mundialean korritzen dutenak.

Asteburuan, bi lasterketa korrituko dituzte jubenilek Zarautzen. Zapatuko lasterketan lehenengo 20ren artean sailkatzen direnek, igandean, Zumaia eta Zarautz bitarteko erlojuz kontrako lasterketan parte hartuko dute.

#### Futbola

Getxo 0 - Haundi 0  
 Eibar 4 - Elgoibar 0 (1. erreg.)  
 Elgoibar 4 - Azkuene 1 (Jubenilak)  
 Elgoibar 2 - Arantzazuko Ama 0 (Infantilak)  
 Lagun Onak 0 - Elgoibar 0 (Kadeteak)  
 Elgoibar 0 - Mondra 1 (Neskak)

#### Saskibaloia

Elgoibar 48 - Lesaka 49

#### Eskubaloia

Elgoibar 30 - Legazpi 7 (Kad. neskak)  
 Aloña Mendi 13 - Elgoibar 29 (Kad. mutilak)  
 Elgoibar 24 - Urola 13 (Jubenilak)

#### Areto Futbola

Egoki 3 - Elgoibar 4 (1. maila)  
 Antxeta 2 - Elgoibar 5 (2. maila)

#### Pilota

Herrien Arteko Txapelketa  
 Elgoibar 4 - Anoeta 1

#### Deba Arroko Txapelketa

Lazcano/Etxabe (Eibar) 18 -  
 Orbea/Arrillaga (Elgoibar) 13  
 Gandiaga/Bengoetxea (Eibar) 22 -  
 Balzola/Gerrika (Elgoibar) 13  
 Narbaiza/Loidi (Eibar) 8 -  
 Ansola/Lazarobaster (Elgoibar) 22

## AGENDA

#### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 27  
 12,00 Elgoibar - Zarautz (Kadeteak)  
 17,00 Haundi - Amorebieta  
 Asteazkena, 1  
 10,30 Elgoibar - Urola (Jubenilak)  
 12,00 Elgoibar - Añorga (Neskak)  
 16,00 Elgoibar - Kilimon (1. erreg.)  
 17,45 C.D. Elgoibar - Real Sociedad (Beteranoak)

#### Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 27  
 17,00 Elgoibar - Almen (Kad. mutlak)  
 Asteazkena, 1  
 10,30 Elgoibar - Urola (Kad. neskak)  
 12,00 Elgoibar - Arrasate (Jubenilak)

#### Futbitoa, Urasandin

Larunbata, 27 FINALAK  
 16,00 Pedrusko - Lucky Luke (KOPA)  
 17,00 Orbea - Sanrroketarrak (LIGA)

#### Pilota, Ikastolako frontoian

Ostirala, 26, gaueko 22,00etan  
 KADETEAK:  
 Leon I/Garate (Elgoibar) - Amezketa  
 JUBENILAK:  
 Balzola/Gerrika (Elgoibar) -  
 Saralegi/Goitia (Amezketa)  
 SENIORRAK:  
 Ansola/Lazarobaster (Elgoibar) -  
 Haritz/Galarza (Amezketa)

## MOTZAK

### Gipuzkoako Bolo Txapelketako tiraldia

Larunbatean, hilak 27, Gipuzkoako Bolo Txapelketari dagokion seigarren tiraldia jokatu da San Migeleko bolatokian. Elgoibartik sanmigeldarrak dira txapelketan ari diren bakarrak. Aurten bi talde ari dira parte hartzen, San Migel A eta San Migel B. Oraingoiz sanmigel A taldea sailkapenaren buru eta gauzak asko aldrebesten ez badira behintzat, aurten ere txapeldun izango dira. Zazpigarren tiraldia izango da azkena.

### Judoka elgoibartarrak Euskadiko Txapelketan

Joan den larunbatean, Arrasaten izan zen Gipuzkoako judoken kontzentrazioan Ibai Klubeko zenbait judokak Euskadiko Txapelketarako sailkatzea lortu zuten 15 urtetik beherako kategorian. Ibai Klubeko 6 kirolari hautatu zituzten Gipuzkoako Federazioko hautatzaileek. Hilaren 27an, beraz, Gasteizen jokatu diren Euskadiko Txapelketako finaletan parte hartuko dute honako judoka hauek: Egoitz Mora 65 kg. arte, Josu Idiak 65 kg. arte, Esther Idiak 48 kg. arte, Ganix Ostolaza 46 kg. arte, Zuhaitz Azpiazu 46 kg. arte eta Xabi González 42 kg. arte.

#### Nazioarteko Txapelketako emaitzak

Ibai Klubeko judokek, Frantziako Tarnos herriko Nazioarteko Txapelketan parte hartu zuten. Elgoibartik 12 lehiakidek parte hartu zuten eta guztira 12 domina lepotik zintzilik ekarri zituzten. Urrezko dominak Xabi Gonzalez, Jon Ander Pascual, Esther Idiak eta Aitor Mugerzak eskuratu zituzten. Zilarrezkoa Ganix Ostolaza, Andoni Atrio eta Aitor Gonzalezek irabazi zuten eta azkenik brontzezkoa honako hautatzaile izan zen: Zuriñe Polo, Jabier Quintano, Zuhaitz Azpiazu, Unai Fernandez eta Maria Idiak. Emaitza hauek gain, klubean sailkapen orokorreko laugarren postuan geratu ziren elgoibartarrak gainontzeko selekziokidekin batera.

## Irabazleek Martin Fiz eta Diego Garcíaren eskutik jaso zituzten sariak

**K**ilometroen batzordeak antolatutako III. Haur Kroseko gonbidatu bereziak izan ziren haurren eta Ikastolako arduradunen artean ageri diren Diego García eta Martin Fiz korrikalariak. Herriko 510 haurrek korritu zuten krosa osatu zuten 13 lasterketetan. Munduko korrikalari onenak diren García eta Fiz Errosario kaleko irteera puntuan egon ziren zenbait lasterketari hasiera emateko. Sari banaketa ekitaldia hasi aurretik, munduko txapelduna izan aurretik Elgoibarko Mugerza Memorialean askotan korritzea derigorra izan dela berarentzat aitortu

zuen gasteiztarrak Plaza Handian zegoen ikuslegoaren aurrean. Fiz eta Garcíaren eskutik irabazle izateagatik sariak jaso zituzten elgoibartarrak hauek izan ziren: Olatz Uriguen, Lander Azpiazu, Esther Bilbatua, Aitor Arrillaga, Desire Lopez, Andoni Gabilondo, Maria Maguregi, Iosu Azkunaga, Ana Etxaniz, David Rodriguez, Miren Bereziartua, Jabier Muñoz, Maider Korta, Iñigo Lariz, Leire Rodriguez eta Mikel Elustondo. Antolatzaileek beren aldetik, Ego-Toki elkartekoen laguntza eskertu nahi dute Fiz eta García igandean Elgoibarren egoteko egin zuten lanagatik.




## MOTZAK

### Futbitoko finalak

Larunbatean, hilak 27, Urasandiko Futbito Txapelketaren azken partiduak jokatu dira. Ohi denez, Kopako eta Ligako finaletan norgehiagoka handia izango da eta emoziorik ez da falta izango txapela lortzeko lehian. Arratsaldeko 4etan Kopako finala hasiko da. Pedrukos eta Lukcy Luke taldeek jokatu dute aurrez aurre eta Setan Ligako finalean, Orbela eta Sanroketa-rrak arituko dira.

### Pilota partiduak

Gaur, ostirala, hilak 26, Herrien Arteko Pilota Txapelketari dagokion jardunaldia jokatu da gaueko 10etatik aurrera Ikastolako frontoian. Kadeteetan Leon eta Garate bikote elgoibartarrak amezkatarrak izango ditu aurrez aurre. Jubenilen mailan, Balzola eta Gerrika elgoibartarrak Saralegi eta Goitza amezketarren aurka arituko dira eta seniorretan, Ansola eta Lazarobaster bikotea Haritz eta Galarza amezketarren kontra.



## Bilbotar baten lana Elgoibarren

Leku-Ederreko parkea ezkerrean, Plaza Handiko iturria eskuinean eta erdian, bi obra hauen egilea daukagu. Oscar Tirado da, bilbotarra, eta maiatzaren 5era arte berak egindako akuarela eta oleoak ikusteko aukera izango da Kultur Etxeko erakusgelan. Oscarrek esan digunez “erakusketa egin behar dudan lekuko gauzak

pintatzea gustatzen zait nire koadroetan, jendeak berea ikustea atsegin baitu”. Estilo ezberdinak erabiltzearen aldekoa da, “gauza berriak esperimentatu eta edozer berrikuntzaren aurrean pertsona irekia naiz”. Pintzelada gogorrak eta irmoak dira bereak, eta argiak protagonismo berezia du Oscar Tiradoren obra guztian.

## Oreretako Andra Mari

abesbatzaren kontzertua entzutera 400 bat lagun urreratu ziren joan den zapatuan San Bartolome elizara. Bi zatitan banatu zen emanaldiaren lehen zatian, Brahms, Gorriti eta Eslavaren obrak interpretatu zituzten. Ondoren folkloreak txanda izan zen: “Lau Atso” eta Sorozabalen “Bigarren Kalez Kale” jo zituzten besteak beste, Ixiar Busselok txistuaz eta Sebas Galdosek atabalez lagundurik. Artzai Txirula izeneko obran Mikel Los

Santosek txistuariekin interpretazio bikaina egin zuen. Ordu t´erdiko saioa eta gero, aipatu obra berriro jotzeko eskatu zuen ikuslegoak, bukaeran txalo beroen artean agurtu zituztelarik Andra Mari abesbatzakoak.



## Tanborradarako bigarren bilera larunbatean

Datorren ekainaren 1ean Nagusien Tanborrada kalez kale ibiliko da baldin eta Elgoibarko gazte kuadrilak prestaketa lanean hasten badira. Apirilaren 17an lehen bilerarako deia luzatu bazen ere, lau bat kuadrilako ordezkariak baino ez ziren agertu. Tanborradaren bultzatzaileak jende gehiago arrimatzea espero dute larunbat honetan, hilak 27, eguerdiko 12etan Kultur Etxean izango den bilera. Entsausak maiatzean hasteko asmoa dute, printzipioz bi egun asteen, lanegunetan bat eta larunbat goizean bestea.

## Trinitate jaietako bilera

Udal Kultur Zerbitzuak deituta, Trinitate jaiak antolatzeko batzordea larunbatean, hilak 27, Kultur Etxean bilduko da Trinitate jaietako egitaraua zehazteko. Herriko talde eta kolektiboei dei egiten zaie bilerara ager daitezten.

## 32 lagunek ikasiko dituzte grafologiaren teknikak

Elgoibarko Izarrak antolatutako grafologia ikastaroak “espero baino arrakasta handiagoa” izan du antolatzaileek adierazitakoaren arabera. “32 lagunek eman dute izena, hortaz, bi txandatan moldatu behar izan ditugu”. Herrikoak ezezik erbestetik ere etorri dira ikastarora, hala nola, Plazentziatik, Debatik eta Eibarrik. Osteguneko lehen saioaren ostean, hilaren 29an eta maiatzaren 9an izango dira bigarrena eta hirugarrena. Antolatzaileek esan dutenez, irakasleei zuzenduriko ikastaro bat antolatzeko proposamena jaso dute Herriko Institutitik, grafologiaren kontuak herrian izan duen harrera onaren seinale.

## Liburu arteko egunak

*Apirilaren 23an ospatu zen Liburuaren nazio-arteko eguna. Kataluniak sortu zuen aipatu eguna eta aurten, lehen aldiz, nazioarte mailara hedatu da. Apirilaren 23 batez hil ziren Shakespeare eta Cervantes idazleak. Horien omenez, egokitu*


- Esaidazue Shakespeare-en eta Cervantes-en liburu bana.
- Zein liburutako protagonista izan nahi zenukete?
- Azken gauak zein libururekin oheratu zarete?
- Noren poesia erabiliko zenukete konkistatzeko?
- Liburua ala liburutik ateratako pelikula?
- Liburu bat irakurtzea baino nahiago duzue...
- Definitu liburu bat.
- Zer sentitu izan duzue liburu bat irakurtzean?
- Zuen bizitzari zein izenburu jarriko zenioke?
- Eta zein amaiera emango?

*zen data hori liburuaren inguruko egun bezala. Ospakizun hori dela eta, kalera atera eta lau gazte ekarri ditugu BARREnera. Gaur egungo gazteek zer irakurtzen dute? Baldin eta irakurtzen badute behintzat...*




*Ana Fernandez*  
16 urte

- “Mucho ruido y pocas nueces” eta “El Quijote”.
- Edozein liburutakoa.
- “Cumbres borrascosas”.
- Beharbada nik idatzitako poesia.
- Biak, konparatzeko.
- Telebista ikusi eta musika entzun.
- Idazle baten pentsamendua.
- Liburuan sartzen zara eta denetik sentitzen duzu. poza, pena, tentsioa...
- “Nire bizitza”.
- Bizitza independente bat, nere lanarekin eta gustura.



*Jon Ruiz*  
15 urte

- Ez dakit.
- “Todos los detectives se llaman Flanagan” liburuakoa.
- “Moriras en chafarinas”.
- Ez dut poesiarik irakurtzen.
- Pelikula.
- Futbolian jolastia.
- Imaginazioa adierazteko era.
- Amaitzeko gogua.
- Ez det sekula pentsatu.
- Lana egiten, familia batekin, umiekin...



*Eneko Irusta*  
15 urte

- “Viaje al centro de la tierra” igual?
- “Bostak”.
- “Moriras en chafarinas”
- Ez dut poesiarik ezagutzen.
- Pelikula, “Parque Jurásico” adibidez.
- Futboleko jolastu.
- Idatzita dagoen papera.
- Nola amaitzen dan jakitzeko gogua.
- Ez zait ezer bururatzen.
- Bizitza lasai bat, lanarekin eta familia batekin.



*Ana Gutierrez*  
16 urte

- “Otelo” eta “El Quijote”.
- “15 urteko kapitaina” liburuarena.
- Ez nago ezer irakurtzen orain.
- Printzipioz nik idatziko nioke baina Bequet-ena ezik, beste dzoieinek ditu poesia onak.
- Biak.
- Musika entzutea.
- Idazle baten ametsak.
- Protagonistak sentitzen duen gauza bera.
- “Persona ez oso arrunt baten abenturak”
- Bizitza lasai eta estable bat baina inolako loturarik gabe.



## Garajeak

- ❖ Marradun garajea alokatzen da Urasandin.  
☎ 74 31 07
- ❖ Garaje bat saltzen dut Santa Ana kaleko 2. zenbakian.  
☎ 74 13 77
- ❖ Garaje ITXI bat saltzen dut Santa Ana kalean.  
☎ 74 21 21
- ❖ Garaje ERDI-ITXI bat saltzen dut pista beltzean.  
☎ 74 00 39
- ❖ Garaje ITXI bat saltzen da Arregitorren. ☎ 74 30 81
- ❖ Garaje ITXI bat saltzen dut P. M. Urruzuno 12-14an.  
☎ 74 22 00  
gaueko 9etatik aurrera

## Lana

- ❖ Era guztietako GARBIKETAK egingo nituzke. ☎ 74 15 42
- ❖ Garbiketa lanak egiten ditut. Lan orokorrak eta obra bukaerak.  
☎ 74 39 63 Alicia

## Etxebizitzak

- ❖ BUNGALOW bat alokatzen dut urte osorako abuztua izan ezik SANTA POLAN.  
☎ 74 12 13 Carmen
- ❖ PISU BAT SALTZEN dut. Prezio interesgarria.  
☎ 74 24 51
- ❖ ETXE BAT SALTZEN dut Urasandin, guztiz eraberritua. 75 m<sup>2</sup>.  
☎ 74 18 94  
☎ (945) 27 78 08
- ❖ LOKAL bat saltzen edo alokatzen dut Urasandin.  
☎ 74 18 94  
☎ (945) 27 78 08
- ❖ ALOKATZEKO BUHARDILA edo pisu merke bat nahi nuke.  
☎ 74 27 90
- ❖ Etxe bat saltzen dut Errosario kalean.  
☎ 74 20 09 (gauetz deitu)

## Salerosketak

- ❖ MENDIKO MOTORRA saltzen dut. 49cc, konponketa txiki bat behar du. 20.000 pta.  
☎ 19 21 07  
(gaueko 9etatik aurrera)
- ❖ PIANO BAT saltzen dut. Prezio interesgarria.  
☎ 74 24 51 Maite
- ❖ BOXER TXAKURKUMEAK saltzen ditut.  
☎ 74 28 68 gauetz
- ❖ 80ko BI OHE DITUEN ARMAIRU BAT salgai. Haur logelarako aproposa. Egoera oso onean.  
☎ 74 22 88
- ❖ Liburuentzako ARMAIRU BAT eta BI LOGELA saltzen ditut. Egoera oso onean.  
☎ 74 15 86 (8etatik aurrera)
- ❖ LOGELA BAT saltzen dut. Bi ohe 1,20koak, armarioa eta mesila. Egoera onean.  
☎ 74 16 77 Kontxi (goizez)
- ❖ HAIZE BEROKO ARROPA SEKADORA saltzen dut. Oso gutxi erabilia. 15.000 pta. ☎ 74 33 41  
gaueko 8etatik aurrera
- ❖ Bigarren eskuko ARGAZKI KAMERA bat saltzen dut. PRAKTIKA BX20. 15.000 pta.  
☎ 74 41 12 Jasone

## Partikularrak

- ❖ OHOKo Klase partikularrak ematen ditut Mendaron.  
☎ 75 51 04 Ana (Arratsaldez)

## Agurrak

- ❖ Zorionak AMAMA JULIri apirilaren 24an 61 urte bete zitu-elako. Zorionak eta musu handi bat bere iloba Nadia eta Noraren partez.
- ❖ Larunbatean, apirilaren 27an, 4 urte betetzen dituen IBON LARREARI zorionak Nadia eta Noraren partez.

❖ Bea Zorionak! Oraindik ere bizitza era askotan margotzeko aukera daukazu. 23 patxo handi. Ama, Kris, Bixen, Aitor eta Maite.

❖ Zorionak Bea eta musu handi bat zure 23. urtebetetzean Maitane eta Ainhoaren partez.

❖ PAKE ETA ALBERTO, "La noche de los cangrejos"ek arrasto luzea lagako du Elgoibarren. Mila esker guztiagatik.

❖ Hilaren 27an 13 urte betetzen dituen INIGO LARIZI zorionak Koldo eta Aitorren partez.

❖ Zorionak ENERITZ CUEVASi hilaren 27an 14 urte egiten dituelako. Gurasoen partez.

❖ Zorionak JORGERi 23an 11 urte bete zitu-elako. Andoni eta Ikerren partez.

## Bestelakoak

- ❖ HAUR TXAKETA berde bat aurkitu nuen San Frantzisko 15 inguruan. 8 taila. Udaltzaingoan dago.
- ❖ OPARI BAT galdu dut Calculmekanoko poltsa batean.  
☎ 74 26 02
- ❖ MUTILEN JAUNARTZEKO erropa daukat berri-berria. Txiki xamarra da tailaz. Lagatzeko prest nago.  
☎ 74 10 44 (gauetz deitu)
- ❖ BI BIZIKLETA dauzka emateko Caritasek.  
☎ 74 15 09 / 74 12 57
- ❖ 5 NINTENDO dituen plastikozko poltsa bat galdu nuen apirilaren 12an San Rokeko kuartel zahararen inguruan. Saritu egingo da.  
☎ 74 34 11 / 74 25 56
- ❖ ERRENTA AITORPENAK egiten ditugu. ☎ 74 16 88  
Itziar / ☎ 74 07 61 Miren

## PREMIAZKO TELEFONOAK



### OSASUNA

Anbulategia:  
 Larrialdiak.....461111  
 Txanda hartzeko.....743354  
 Planning-a .....742950  
 Alkoholiko Anonimoak..740385  
 D.Y.A (anbulantzia) ..464622  
 Gurutze Gorria.....743864  
 Mendaroko Ospitalea756264  
 Drogomenpekotasun Z.741008  
 Odol Emaileak .....743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442  
 PESA (Eibar).....102131  
 Taxi geltokia.....740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366  
 Udal Kirol Patronatua...744415  
 Kultura Zerbitzua .....742158  
 Mendaroko Udala ....756100  
 Ongizate zerbitzua...743736  
 Udaletxea .....741050  
 Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....740142  
 Elgoibarko Izarra.....741626  
 IMI.....741196  
 Kontsumo Bulegoa ...743088  
 Liburutegia .....743525  
 Musika Eskola .....742145  
 Mintxeta .....744315  
 Parrokia.....740842  
 Polikiroldegia .....741361  
 Postetxea.....741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296  
 Zaharren Biltokia.....740526

### IKASTETXEAK

Haur Eskola.....74 21 41  
 Herri Eskola .....74 08 79  
 I.M.H. ....74 41 32  
 Institutua .....74 02 67  
 Ikastola .....74 44 41  
 L.H.I.....74 44 80  
 Pilar Ikastetxea .....74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12  
 El Diario Vasco .....74 40 73  
 El Mundo .....74 27 59  
 El Correo Español...74 10 82  
 Egin.....10 84 21  
 Zazpiki irratia .....74 34 74

## 26 OSTIRALA

22,15 ZINEA

“Broken Arrow”

## 27 LARUNBATA

15,00 PLATER TIRAKETA

✓ San Pedroko tiro zelaian  
Antolatzailea: La Unión

16,30 HAUR JAIALDIA  
IGERILEKUAN

✓ Olaizaga Kiroldegian

17,00 GIPUZKOAKO BOLO  
TXAPELKETA

6. tiraldia

✓ San Migeleko bolatokian

19,30-22,15 ZINEA

“Broken arrow”

## 28 IGANDEA

08,00 MENDI IRTEERA

Aiako Harria

✓ Irteera Plaza Handitik

Antolatzailea: Morkaiko M.E.

16,30-19,30-22,15 ZINEA

“Broken arrow”

## 29 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

“Broken arrow”

## ASTEARTEA

19,30 MAHAINGURUA

Gaia: Diseinuko drogak:  
tratamendua eta prebentzioa  
Hizlaria: Marga L. Azkona  
psikologoa

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Errotatxo

22,00 ZINEA

“Broken arrow”

## 1 ASTEAZKENA

19,30-22,15 ZINEA

“El efecto mariposa”

## 2 OSTEGUNA

19,30 HITZALDIA

Gaia: Korrupzioa eta narkotrafikoa

Hizlariak: Txus Congil

Askagintzako kidea

Laura Pego ADOREko abokatua

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Errotatxo

## 3 OSTIRALA

22,00 ELKARRIZKETA- EZTABAIDA

Gaia: “Elgoibarren asko edaten  
omen da. Egia ote?”

Partaideak: herritarrak

✓ Herriko Antzokian

Antolatzailea: Errotatxo

## txandak

### FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
27, larunbata:	Yudego	Yudego
28, igandea:	Yudego	Yudego
29, astelehena:	Bidasolo	Bidasolo
30, asteartea:	Bidasolo	Bidasolo
1, asteazkena:	Bidasolo	Bidasolo
2, osteguna:	Bidasolo	Bidasolo
3, ostirala:	Bidasolo	Bidasolo

### OKINDEGIA:

28, igandea: FOTERO

1, asteazkena: ZABALETA

## ZineA

### Broken arrow

Broken Arrow Pentagonoan erabil-tzen den kode sekretu bat da; arma nuklear bat galdu egin dela esan nahi du. Bonbardero bateko bi piloturen arteko adiskidetasuna eten egiten da bomba termonuklear bat lapurtzen dutenean. Adiskidetasuna zena nor-gehiagoka gogorra bihurtzen da, biek nahiko baitute bomba berreskuratu. Iparrameriketako hiri garrantzitsu baten aurkako eraso dago jokoan.



### El efecto mariposa

Londresera bidaiari joaten da Luis. Mutil serioa, noblea, kontserbadorea eta dena ondo antolatua izatea gus-tatzen zaionetarikoa da. Bere izeba Olivia Londresen bizi da eta harek ostatua topatuko dio auzokide baten etxean. Olivia duela 10 urtetik bizi da Londreseko auzo batean eta bere senarra aktorea da. Izeba eta ilobaren artean harreman berezia sortuko da, maitasun kutsuko harremana.



Langabezia, prekaritatea, esplotazioa...  
aurre egin egoerari



Iruñean, eguerdiko 12etan, GOLEM zineman



**Maiatzaren 1ean  
Zatoz!**

Bilboko Jesusen Bihotzaren plazan, goizeko 11,30etan  
Amaieran luntxa egongo da

Leher   lana




• Proiektu mekanikoaren garapena/ Delineazio industrialak  
• Mekanizazio bidezko produkzioa/ Fabrikazio mekanikoa  
• Industrial ekipamenduaren mantenimendua/ Sistima eta makina automatikoen mantenimendua

- Fabrikazio mekaniko proiektuen garapena/ Delineazio industrialak
- Mekanizazio bidezko produkzioa/ Fabrikazio mekanikoa
- Industrial ekipamenduaren mantenimendua/ Sistima eta makina automatikoen mantenimendua

- Bideo eta transparentzi proiektagailuz hornituriko gelak
- Informatika gelak
- CNC programazio eta simulazioko gelak
- CAD-CAM-CAE gelak
- Diseinu gelak
- Liburutegia & multimedia zentrua

- E-M konbentzionala
- CNC E-M didaktikoa
- Produkziarako CNC E-M
- Muntaia

- Metrologia
- Metalografia & materialak
- Automatismoak
- Elektrizitate & elektronika
- Neumatika & hidraulika
- Tratamendu termikoak



8.30etatik-13.00etara eta 14:30etatik 17.30etara